

AHAL DUGU ALA EZIN DUGU, HORTXE DAGO KOXKA

Bigarren hauteskunderen ostean Podemos-ek lortu zituen emaitzak ikusita, denok geratu ginen azalpen baten zain; Podemos-eko ordezkariak, ordea, ez ziren gai izan zentzuzko azalpenik emateko, aurretiazko emaitzei buruz denak oso itxaropentsu agertu baziren ere, batez ere Izquierda Unida-rekin batera aurkeztuko zirela iragarritz geroztik. Ezintasuna, beraz, hartutako nahigabea azaltzeko.

Nik ez dut esango horren arrazoia badudala, edota ez dudala. Zer gertatu zen ulertzen lagunduko digun arrazoi bat edo beste aurkitzen saiatu naiz, besterik ez, Podemos-ek zergatik ez zituen boto gehiago lortu ulertzen ahalegintzeko.

Nire ustez, lehendabizi, Podemos-en jatorria gizarte-mugimendu batean dagoela izan behar dugu kontuan. Podemos ez zen ohiko alderdi politiko baten modura sortu; aitzitik, egoera jasangaitz baten ondorioz sortu zen, mugimenduaren pizgarriak aski ezagunak izanik: etxe-kaleratzeak, lanpostuen eta gizarte-eskubideen galera, ustelkeriari lotutako kasu ugariak, bankarien eta banketxeen gehiegikeriak, hala nola langabezia eta gazteriaren lan-itxaropenik eza, eta abar.

Baina, jatorriz, Podemos inoiz ez da ohiko alderdi politiko bat izan, gizarte-mugimendu bat baizik, eta hainbat eta hobeto beretzat, horrek frogatzen baitu Podemos-en sorrera ez dagoela interes partikularrei lotuta, gizarte zibilean bertan errotuta baizik, erakunde ez oso hierarkizatu bat osatzen duelarik.

“Gizarte-mugimendua” izatetik “alderdi politikoa” izatera egindako urrats horretan, ordea, Podemos bere “esentzia”, bere “arima” galtzen ari zelako sentrazioa izan zuen jende askok, mugimendua bere izatearen arrazoia galtzen ari zela alegia, benetako helburuak “ahaztu” izan balitzaizkio bezala edo, besteak beste: etxe batean bizitzeko eskubidea eta lana izateko eskubidea aldarrikatzea, bizitza duina exijitzea, gizarte-eskubideak defendatzea, bidegabekeriaren aurka borrokatzea, bankako jauntxoei aurre egitea, agintari ustelak salatzea, autoritarioei aurpegi ematea, alderdibitasunari amaiera ematea, e.a.

Eta, zer dela eta izan zuen hainbeste jendek (armairuan milioi bat boto geratu zela kalkulatu da) horrelako sententzia edo pertzepzioa? Podemos-eko ordezkariak, gizarte-mugimendu gisa harira ez zetozen gauza askori buruz hitz egiten entzun zitzaielako; gizarte-mugimendu baten hitzak eta erronkak baino gehiago, alderdi politiko baten jarrerak eta diskurtsoak erabili zituen, eta horrek zalantza, etsipena eta mesfidantza ekarri zizkion.

15-M mugimenduaren garaian, kalera ateratako jendea arrazoi zehatz batzuegatik manifestatzeko ateratzen zen. Ehunka mila pertsona ateratzen ziren kalera begi-bistako bidegabekeriaren aurka protesta egitera: etxe-kaleratzearen aurka, osasun publikoa desagitearen aurka, PPK onartutako lan-legearen aurka, Vert legearen aurka, PPko industria-ministro kaxkarrak Eguzkiari ezarritako zergaren aurka, Mozal legearen aurka, PPren botere-organo guztietan azaleratzen zen –eta azaleratzen den– ustelkeriaren aurka, e.a.

Hau da, oso aldarrikapen zehatzak ziren, aldarrikapen sozial hutsak ziren. Eta Podemos-ek, hau da, gizarte-mugimenduak lortzen baldin bazuen gobernuan bere burua ondo kokatzea, estatu osoan milioika lagun kalera atera zituzten oinarrizko aldarrikapen horiek erdiestea ez zirudien ezinezkoa izango zenik.

Aldiz, lehendabiziko hauteskunde orokorren ondoren, Podemos-ek emaitza benetan onak lortuta ere, jende askok pentsatu zuen –nire ustez– sekulako aukera galtzen ari zela gizarte-mugimenduaren oinarrizko aldarrikapen horietako asko lortzeko. Zergatik? Bada, gizarte-aldarrikapenak lehenetsi ordez, alderdi politikoaren diskurtsoa lehenetsi zuelako, gizarte-mugimendua bera bigarren leku batean utzita.

Ez dezagun ahantz: badira alderdi politikoak, hasieratik bertatik alderdi politiko gisa eratzen direnak, baina hau ez da Podemos-en kasua – zorionez–; beraz, alderdi politiko baten gisa jokatzek Podemos-en jarraitzaile eta zale askoren eskemak apurtu zituen

Nire ustez, estatuko lau liderren artean eginiko eztabaida ospetsuan, telebistako ikusle guztiak lekuko zirelarik, Pablo Iglesiasek honako proposamen hau egin beharko ziokeen Sanchez-i: “Aizu, gobernu osatu

nahi baduzu, gure aldetik ez dago inongo eragozpenik, baldin eta, une honetan, gu ikusten ari garen herritar guztien aurrean, hitz ematen badiguzu gure oinarrizko aldarrikapenak lortzen lagunduko diguzula. Honako hauek:

- 1) Etxea ordainean ematea.
- 2) PPren Lan Legea indargabetzea.
- 3) Vert Legea ezabatzea.
- 4) Mozal Legea atzera botatzea.
- 5) Eguzkiari ezarritako zerga lotsagarria kentzea.
- 6) Garoña ixtea eta energia berriztagarriei bultzada handia ematea.
- 7) Ustelkeriaren aurkako neurri zorrotzak hartzea.
- 8) Autonomia Erkidegoekiko errespetua (eskumen guztiak helaraztea eta horiek blindatzea).
- 9) Langile autonomoei langabezia-saria jasotzeko eskubidea ziurtatzea (gainerako soldatapekoen baldintza berberetan).
- 10) Erretiroa hartzeko adina bere horretan uztea.
- 11) Diru-baliabiderik ez daukatenei gutxieneko errenta bat ziurtatzea.
- 12) Osasun publikoa bermatzea.”

Une horretako gizartearentzat hain “sozialak” eta hain “sentsibleak” ziren aldarrikapenei ez dut uste Sánchez-ek biguina erakutsiko zienik. Eta gobernu osatzearen truke, hau da, “besaulki”en truke, Sánchez-ek poz-oz egongo zuen bat aldarrikapen horiekin eta denak edo gehienak egongo zituen bere, horrek Alderdi Socialistaren diskurtso aurrerakoari eusteko aukera emango baitzion, eta gainera, bere alderdian bertan bera gaitzesten duten kritikoak (gero eta ugariagoak direnak, berriaz) kontentatzeko edo isilarazteko aukera ere emango zion, bide batez. Horrela, Podemos-ek, atzean duen gizarte-mugimenduaren oinarrizko aldarrikapenak ez ezik, politika baldintzatu, alderdibitasuna (bipartidismoa) hautsi eta

gobernuari ezkererantz bira garbia emanarazteko aukera ere izango zuen.

Baina ez zuen horrela egin. Bigarren hauteskundeei begira Podemos-en diskurtsoak bazirudien urrundu egin zela gizarte-mugimendutik edota kaltegarria ere izan zitekeela mugimenduarentzat berarentzat; jarraitzaile eta zale askok, nire ustez, horrelako sentazioa izan zuten, eta bigarren hauteskundeetako emaitzetan etsipen hori islatuta geratu zen, hurrengo negoziazioei begira Podemos ahulduta utziz. Lehendabiziko hauteskundeetako euforian mozkortuta ibili ondoren, boterea hain “hurbil” ikusita, Podemos itozteko arriskuan ibili zen.

Nolanahi ere, nik esan dezakedan gauza bakarra hau da: alderdi politiko batek, edo gizarte-mugimendu batek, kolpe batez lortzen baldin badu goian zerrendatu ditudan 12 aldarrikapen horiek egia bihurtzea, eta gainera, alderdibitasuna haustea eta gobernu ezkererantz biraraztea ere lortzen baldin badu, zer gehiago eskatu daiteke?, lorpen horiek guztiak ez al lirateke berez pozaren pozez saltoka hasteko modukoak izango?, 15-M mugimenduaren eta haserretuen arrakasta handi bat ez al litzateke izango?, aurrezkiak galdu zituztenentzat, etxerik gabe geratutakoentzat, lanik eta lan-baldintzarik gabe utzi zituztenentzat ez al litzateke errebantxa ederra izango?

Podemos-en barruan hau esango zuen norbait faltatu zen: “Ez gaude hemen gobernatzeko, politika baldintzatzeko baizik, gu geure gizarte-aldarrikapenei zor gatzaizkie eta”. Izan ere, Estatu bat ez da gobernatzen ez ministerioetatik ez besaulkietatik, baizik kongresutik, senatutik. Ministro bat biziki tematu arren, ezin izango du lortu legerik, dekreturik edota agindurik aurrera ateratzea ez baldin badu dagokion gehiengoa. Axola duena hori da eta: ez mahai baten atzetik nork gobernatzen duen, baizik diputatu jaun-andreen aukietatik nork gobernatzen duen.